

inguruan baturiko
zarrast oro eztarrian
biurtu yakon kantu.

Onenbestez ixildu zan,
ta mendiak oindiño
doiñuaren ots luzean
«kantari eder!» diño.
Ordun, kantua zer zanik
ez ekin txauak, zatarrrik:
—Bai motza, orraitino!

Ez eban ezertxo esan
karnaba kantariak,
ezta eritxirik emon
gallupa zusmariak,
zur egiñik bai egozen
aren soiñuak entzuten
txintari bikain biak.

* * *

Aitzen dauanak goretsi
bear dauz baliosak,
euren garrasiz bestela
balio ez dabenak
mundu-jaun yakuz egingo:
ba-dabe zerbait olango
gaur euskal idazleak.

M I K A K

Uts-arteak beiñola
jzan eben mikak;
asarratu zirean
eta utikan kantak.

Abi barru sarturik
luzaro ez eben,
euren artean ezik,
itzik ateraten.

Beste mendi-txoriak
zurtuta egozan,
itz-ontzi lerdan areik
orrela ikuskeran.

Euren uste apalez
arein joku barik
ezingo ziran bizi,
asko beintzat, pozik.

Joan yakezan oiuka,
joteko esanik;
mikak alan be muker,
lengoan ixillik.

Baiña etzaite izutu,
arrezkero gauzak
obeto darabillez
basarte-oianak.

Lan geiago lugiñak,
ainbeste jtz barik;
iñori min egiteka,
bakean bizirik.

Kalean bakeago,
obeto oldozturik:
on danak or dau iturri,
ez dago zalantzirik.

* * *

Irrati ta urritizkin
ba-da ots mindua...
Opor pizkat ez ete
letorke eratsua?